

Udazken honetan mundua amaituko omen da



ROSER ESPELT ALBA
EKONOMIALARIA

Etengabe esaten ari zaizkigu prestatu beharra dugula, uda honen ondoren hainbeste beldur eragiten duen –batez ere probreengan– gaitz hori baitator: krisia. Macronek berak esan du "oparotasunaren aroaren" amaierarako prestatu behar dugula. Ekonomialariok ez dugunez etorkizuna ikusteko kristalezko bola magikorik, kosta egiten da garia lastotik bereiztea. Bereziki, gaian adituak direnen ahotsa sistema kapitalistaren helburu propagandistikoek bideraturiko espekulazioetara mugatzen denean. Baina zer da benetan datorkiguna? Benetan al gaude atzeraldi sakon baten atarian?

Lehenengo galderari zehatz-mehatz erantzutea zaila bada ere, bistakoa da etorkizun hurbilak ez duela itxura onik. Hainbat elementu daude mahai gainean: lehenik eta behin, energiaren prezioa, gaintzeko prezioen igoeraren erantzule nagusietako bat, baliteke apur bat jais-tea, baina argi dago energia merkearen aroaren amaieran gaudela. Horrek gure patrikei eragingo die, baina bereziki narbituko da industrian eta mundu mailako merkataritzan. Esanguratsua da, ildo honetan, Alemaniaren kasua. Euroguneko motor ekonomikoak hain bereizgarri zuten superabit komertziala, energia merkearen –gas errusiarraren tarterko– eskuragarritasunean oinarritzen zena, galdu du eta defizit egoeran dago. Prezioen igoera

orokorrari erantzuteko, Erreserba Federalak eta EBZk interes-tasak igo dituzte. Egoera larriagotu besterik egiten ez duen neurria, finantza-kapitalaren interesak babesteko besterik ez baitu balio. Interes-tasen igoerak, munduko zorra BPGaren %350tik gora dagoen honetan, galbidera eraman ditzake familia asko, enpresa asko, baina baita herrialde osoak ere. Esaterako, Brasil, Turkia edota Argentina bezain herrialde garrantzitsuak Sri Lankaren bide beretik joateko arriskuan daude.

Eta zeri egin beharko diogu aurre? "Ugaritasunaren aroa" amaitzeak, urritasunaren aroaren hasiera esan nahi du. Baieztapen honek bat baino gehiago harrapatuko zuen bere oparotasunaren aroa ea noiz izan zen ezin asmatuta. Krisi arreakuspen katastrofista orori dario shock doktrinaren kiratsa eta dagoeneko martxan dira propaganda diskurtsoak gutxi batzuen mendeetako oparotasunaren erresakaren kostuak gehiago batek bere gain har ditzan, beste behin ere. Horren aurrean, birpentsatu beharko dugu zer den funtsezkoa eta zer behar dugun, zein sektore murriztu behar diren (edo erabat desagertu, armak eta petrolioia kasu) eta zein indartu. Aldaketa sahiestezina da eta gatazkarako prestatu beharko dugu, edozein gizarte aldaketak berezkoa baitu. Soberan duten horiek nekez egingo baitiote uko gehiengoak faltan dugun horri. ●

Plas-plast



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA

Gustuko dut telebista isiotuta, beste zeregin batzuetan ibiltzea. Askotan jaramon egin barik, marmarra hondoan, *zappingik* ez. Iragarkietan entzuten nuen "Disney plas", baina adi ez nengoenez, ez nekien zer zen.

Plas gora, *plas* behera, halako baten konturatu nintzen "plus" zela, +.

Plas? Gero konturatu nintzen *Heitx-biou*, *Bibizi* eta *Zienen* esaten zutela kazetari batzuek, euskaraz eta gaztelaniaz, HBO, BBC eta CNN telebista kateez zihardutela.

Ez dakit zergatik dagoen modan hori, ingelesa badakitela erakusteko? Dena

hobea delako ingelesez? Ala morrontza hutsa da?

Beste leku batzuetan ere gertatzen da halakorik? Lehen, hemen ez. IRA, ira esaten zen, *ez aierei* edo dena delakoa. Oraindik gogoan dut ezagun frantses batek frantsesez ETaz galdetu zidanean: ez nion ulertu e, t, a banan-banan esan zidalako, hala erabiltzen dutelako.

Baina akabua izan zen Amaiurren egindako "Libera State" antzerkiari ziharduela esatari batek Libera *steit* esan zuenean! *Steit*. Orduan bai, maitrailean egingo nion gogotsu kazetariari *plas-plast*. ●